



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2024ko martxoa · 408 alea

JON UGARTE
BASOZAINA
**"MENDIAK GEHIAGO
ZAINDU ETA MAITE
BEHAR DITUGU"**





PIL-PILEAN 408

2024ko martxo

Azaleko argazkiaren egilea:
Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa Lourdes Letona Antia | IRITZIA |
| 6 | Begira Landaketa epikoa | 3 Neuretik Ane Ugalde <i>Sosiguz!</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Iker Aldazabal <i>Tokiko Energia Komunitatea</i> |
| 12 | Argazki bidez Gora lekuko hori! | 16 Komiki tira |
| 14 | Plazan bazan Umeendako jolasak | 17 Hausnarketa Zer sentitu duzu herrian Korrikaren lekukoa eroan duzunean? |
| 18 | Erreportajea Gure mendien, basoen eta animalien egoera, basozainaren hitzetan | 17 Puntua Arianne Unamuno <i>Loratzen</i> |
| 24 | Kirola Soraluze hockeyko egoitza ofiziala izango da | |
| 26 | Kultura Punk-a etxera bueltatu da | |
| 28 | Nondik nora Soni Blanco | |
| 30 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko
UDALA**

Sosiguz!



ANE UGALDE

Otsaileko azken egunetan, Pil-pileanetik hurrengo alerako iritzi artikulua prestatzea tokatzen zitzaidala gogorarazteko emaila heldu zitzaidanean, ezustean harrapatu ninduen. Zelan, ya? Honezkero urte bat pasau da azkenengoz idatzi nebanetik?

Horrek eraginda, denboraren inguruan hausnartzen nabil egun hauetan. Egunak, asteak, hilabeteak eta urteak zergatik doazen hain azkar, arrapaladan. Esango nuke, gainera, sentsazio hori orokorra dela gure gizartean. Orain, jada martxoan gaudela, ez al zaizue iruditzen duela ezer turroi eta mazapanak genituela mahai gainean?

Argi dagoena, egunak 24 ordu irauten dituela da, eta ordu bakoitzak berri, 60 minutu irauten dituela beti. Berdin dio abuztua ala martxoa izan, edo norberak 20 urte ala 60 urte izan. Beraz, denbora azkar doan sentsazio hori, pertzepzio hutsa da. Beste era batera esanda, eta teoria fisiko-kuantikotan sartu gabe, denbora faktore neutro bat izanik, guk berarekiko dugun hautematea edo pertzepzioa da kontu honetan gakoa.

Baina, zerk garamatza azkartasun hori sentitzera? Batzuetan, nire burua aireportuan azkarrago aurreratzea ahalbidetzen duten eskailera mekaniko itxurako plataforma horietako batean irudikatzen dut. Oinez noa, baina gorputzak ahalbidetzen didana baino azkarrago egiten dut aurrera. Hori oso ondo dago hurrengo hegaldia hartzeko presaka baldin banoa. Baina ez badaukat presarik, zergatik noa plataforma horretan? Kondenatuta al nago beti presaka ibiltzera?

Gogoan dut umetan katekesira joaten ginenean, irteeran apaizaren etxeko eskailerak dranbalada demasean jaisten genituenean, katekistek nola oihu egiten ziguten: trankil joan, jausteke! Sosiguz jaitsi eskailerak! Sosiguz, gero eta gehiago gustatzen zaidan hitza da. Oso egokia eta konpletoa dela iruditzen zait, ez baitio abiada eta denborari soilik erreferentzia egiten; patxada, lasaitasuna eta baretasun sentsazioak hartzen ditu bere baitan. Denboraz gain, horrekiko dugun jarrera ere aintzat hartzen du!

Sosiguz bizitzen ahaleginduko naiz, beraz. Gaurko bizitzako plataforma mekaniko horretan aurrera joan beharra izango dut, baina nire jarrera patxada handiagoz eta presa gutxiagoz osatuko da.

PATXADA, LASAITASUNA ETA BARETASUN SENSAZIOAK ERE HARTZEN DITU BERE BAITAN

“Zoriontsua izan naiz hemen eta penaz joango naiz”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI TXURRUKA

Lourdes Letona Antiak (Zumarraga, 1958) erretiroa hartuko du maiatzaren amaieran, azken 16 urteotan Soraluzeko anbulatorioan egon ondoren. Azeptian bizi da eta bitxikeria moduan, 6 urteotan Soraluzen mediku izan den Amaia Muniain izango da aurrerantzean Letonaren medikua, Muniain martxoaren 18tik han baita lanean.

Zelan iritsi zinen Soraluzera?

Azeptian, Ataun-San Gregorion eta, besteak beste, Mendaroko anbulatorioan ibili nintzen lanean. Mendaroko plaza nahi nuen, baina han zegoen medikuarena zen; gero, Elgoibar zen lehen aukera, baina bigarren gelditu nintzen. Inguruaz ezagutzen nuenez, Soraluze izan zen nire bigarren aukera. Hemen nagoenetik, aldatzeko aukera izan dut, baina erabaki nuen hemen erretiratuko nintzela.

Beti izan zara familia medikua?

Hori dut gustuko, zuzeneko harremana izatea.

Zelako gaixoak gara soraluzetarrak?

Ohituta daude berehala artatuak izaten. Beste leku batzuetan astebetere ematen dituzte txandak.

Badago ezaugarri berezirik Soraluzen?

Batik bat jende nagusia dago. Nik gustukoan dudana, geriatria egin nahi baitnuen.

Eta aldaketa nabarmenen bat?

Inmigrazioa. Migranteen kasuan, duten patologia izan daiteke herrimina dutelako, bakardadea... jakin behar da nondik datozen, nola bizi diren... Askok aldatu da, baita ere, medikuntza bera. Hasi ginenean, ez genuen kontsulta propiorik, 2,5 orduan kontsultorioan egon eta gero joan egin behar izaten ginen hurrengo medikuari lekua egiteko, eta, guardian egoten ginen, nahi genuen lekuan. Gero hasi ziren aurretiko hitzorduetan, anbulatorio handiagoak, norberak bere kontsulta eta jardunaldi osoa; hau da, lehen arreta zerbitzua hasi zen, 1984-1985 inguruan.

Orain entzuten da Osakidetza gainbeheran dagoela; zer da aldatu beharrekoa ya?

Aspaldi aldatu behar zen, baina ez ziguten kasurik egin. Gure belaunaldian medikuak soberan geunden. Orain, berriz, ez dago medikurik.

Zergatik ez?

Askok erretiratzen ari gara eta ez dago mediku berririk.

Baina zergatik ez dago mediku berririk?

Oso plaza gutxi ateratu dituzte formatzeko eta oso nota altua behar da MIRean sartzeko; ondorioz, asko, mediku bokazioa izan arren, ezin dira MIRean sartu. Aldi berean, irteten diren medikuek lan baldintza erosoagoak -guardia bakoak...- dituzten espezialitateak nahiago dituzte, dermatologia bezalakoak.

Hortaz, zer egin?

MIRean sartzeko nota jaitsi, benetan familia mediku izan nahi dutenei ateak zabaltzea eta behar den moduan tratatu eta zaindu.

16 urtean denetik pasatuko zitzazun, baduzu gogoan gertakariren bat?

Oso pozgarria izan zen txupinazioa bota genuenean, Udalak aitortza hori egitea eskertzekoa da. Jendearengandik, berriz, eskerroneko keinu asko ditut -kontsulta marrazkiz beteta dauka, adibidez-.

Soraluzeko anbulatorioak zer du ona eta zer txarra?

Ona erdi-erdian dagoela eta onena bertako lantaldea. Txarra, oso txarto diseinatuta dagoela larrialdietarako. Igogailuan ez dira kamilak kabitzen eta botikina lehen solairuan dago. Arazoak izan ditugu bihotzekoak izan dituzten pazienteekin. Mila bider eskatu dugu beheko solairuan larrialdietarako espazioa egokitzea, hor dagoen biltegia erabilita. 16 urtean ez dugu lortu.

Zelako oroitzenak eramango dituzu Soraluzetik?

Oso onak. Oso ondo hartu ninduten, jende oso jatorra dago, lana gustuko dut eta pena ematen dit joateak.

Azken gomendioaren bat mediku bezala?

Prebentzioa da garrantzitsua, bizi ohitura osasuntsuak izan, kirola egin eta frustrazioak ondo mediatizatzen jakin. Gaur egun, adibidez, bikotearekin apurtuz gero, asko gaixotu egiten dira, gehienak 30-50 urte bitartekoak. Bizitzan zailtasun eta arazo handiak izango ditugu. Arazoak bideratu behar dira zerbait normala bailiran eta ez gaixotasun bat, oso garrantzitsua da hori.



Landaketa epikoa

ARGAZKIA: BASO BIZIAK.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.


Aurtengo Zuhaitz egunean, ohikoa den moduan, bertako zuhaitz landareak sartu zituzten: haritzak, urkiak, ezkiak, sagarminak, otsolizarrak... 250 landare, hain zuzen, Akilar esaten zaion lekutik hurbil, mendigainean. Aurtengoa, benetan epikoa izan zen, parterik gehiena euripean edo elurpean egin behar izan zuten eta. Egia esan, berez da zeregin epikoa gure mendietan bertako zuhaitzei dagokien lekua egin nahi izatea, bitartean basogintzaren sektorea, papergileen industria eta erakunde publiko zenbait oraindik ere, kosta ala kosta, monokultiboa eta ekoizpen intentsiboa bideratu nahian dihardutenean. Inguruko mendietara begiratu besterik ez dago panorama zelakoa den ikusteko.







Errepidea garbi, atzo, eguena.



Zapatuko luizia.

Horma berria egingo dute

Errabaleko luizia garbitzeko lanak aste honetan bukatu dituzte eta datorren astean horma egonkortzeko lanak egingo dituzte; besteak beste, pareta berria egingo dute

Dagoeneko garbi dago Errabal 11 atari pareko errepide zatia, lur-jausiko lurra eta harriak batu eta eraman egin baitituzte Fernando Petralanda enpresako langileek aste honetan. Gaur, berriz, barikua, atzera ere geologoa bertaratu eta egoera berraztertuko du. Adituak ez badu bestelakorik adierazten, datorren astean pareta egonkortzeko lanak egiten hasiko dira, Unai Larreategi alkateak esandakoaren arabera.

Alkateak emandako xehetasunen arabera, hormigoizko bloke batzuk jarriko dituzte pareta eusteko eta lan horiek bukatu bezain laster zabalduko dute berriro ere errepidea eta herri barruko

zirkulazioa normaltasunera bueltatuko da.

Zirkulazio berrantolaketa

Errabaleko luizia martxoaren 16ko goizaldean gertatu zen, zapatuan. Errabaleko 11. atariko bi etxejabeen esanetan, burrunba ederra eginez jausi ziren harriak eta lurra goitik behera, errepidera, etxearen atariraino. Bizilagunek abisatuta, larrialdi zerbitzuak laster bertaratu ziren egoera ikuskatzera. Aldi berean, Sorluzeko Udalak egunean bertan, herri barruko zirkulazio berrantolatu zuen eta Udalaren eskariz, hurrengo egunean, domekan, ikerketa geoteknikoak egiten dituen enpresa bateko

teknikariak izan ziren luizia aztertzen. Lehen begiratu baten esan zuten ez zuela ematen arazo estrukturalik dagoenik, baina luizia goitik behera garbitzen den heinean ikusiko dela benetako egoera zein den. Esandako moduan, gaur, barikua, egingo dute hori.

Otsailen beste hiru luizi

Errabaleko luizia baino lehenago, otsailaren 26-27ko euriteekin, mendi inguruetan izandako beste hainbatekin batera, GI-627 beste hiru lur-jausi izan ziren. Gipuzkoako Foru Aldundiko prentsa bulegotik esandakoaren arabera, luizi bat izan zen Osintxun (pk 49,6) eta beste bi Sorluzeren eta Maltzagaren artean (pk 54,2 eta 56,00). Hiru lur-jausiak garbitu egin ziren eta ezponda berdindu. Jarduketa txikiak izan dira eta Sorluzeko kasuan, nahikoa, Diputazioaren esanetan. Xehetasunen arabera, Osintxukoaren kasuan eskoilera txiki bat aurreikusita dago, jarduketa hori onartzean egingo da, baina ingura segurtatua dago. Gainerakoetan, oraingoz, ez dago estabilizazio neurririk hartu beharrik.

Saihesbidean ere bai

Bestalde, lehenago ere, 2021eko abenduan luizi handi bat izan zen saihesbidean. Errepidea itxi eta garbitu ondoren, atzera ere zabaldu zuten, baina bi egun geroago berriro ere jausi ziren harriak. Atzera ere itxi, eta Diputaziotik esandakoaren arabera, bere garaian garbitu zen guztia eta gaur egun ez da aurreikusten estabilizazio neurri gehigarririk hartzea.



Otsailean Soraluzen izandako luiziaren ondorioz, zirkulazioa etenda izan zen errepidean.

Presioa handitu

Diputazioko teknikariak esplikaturakoaren arabera, ezpondetako materialek propietate erresistente baxuak izan ditzakete eta, euri-jasa luzeen ondoren, materialen hutsuneak betetzen eta gainezka egiten joaten dira. Horren ondorioz, presioa handitu egiten da lurlean eta lur-irristatzeak gertatzen dira. Lurra drainatzeak ezegonkortasunak saihesten laguntzen du, baina kasu askotan ez da nahikoa drainatzea; izan ere, ezponda gehiago zabaldu behar da, edo hari eusteko elementuak jarri behar dira, hala nola harri-lubetak, sareak, buloiak...



2021ean luizi ikusgarria gertatu zen saihesbidean; hor ere itxita izan zen errepidea.

Kontulan

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

www.kontulan.com

MENDIZABAL
okindegia
Ogla - Prentsa - Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

HNOS. BENITO ANAIK
MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurria egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47

Bidelagun euskaltzaletasunean



aras



laibi
ELECTRICIDAD



TEK Soraluzeren aurkezpenean, Josu Etxebarria ingeniaria eta Unai Larreategi alkatea.

Argindarra berriztagarritik

TEK Soraluze eratu dute, Soraluzeko Energia Komunitatea; herritarrek eta merkataritxiak dute bazkidetzeko aukera; jasoko duten energiaren 0,5 KW, berriztagarrietatik etorriko da, herriko eguzki plaketatik

Herrian bertan modu berriztagarrian sortutako energia soraluzetarrek zuzenean kontsumitzeko aukera ematen duen komunitatea sortu dute, TEK Soraluze. Martxoaren erdialdean aurkeztu zuten herriko lehen komunitate energetiko hori, Herri Antzokian, 80 bat herritar bertan zirela.

Esplikatu zuten, herriko hiru teilatutan, San Andresko frontoikoan, futbol zelaiko harmailtan eta Plaentxi Eskolan 302 eguzki plaka jarri dira Soraluzeko Udalak utzitako teilatuetan Europako Next Generation eta Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntza

baliatuta. Eguzki plakek 135 kW-ko potentzia sortuko dute. Bada argindar hori TEK Soraluze komunitateko bazkide egingo diren herritarren eta merkatarien artean banatuko da, hasiera baten, etxe bakoitzari 0,5 KW.

Bi hilabete bazkide egiteko

TEK Soraluze komunitate energetikoaren lehen fasea honetan, 200-210 bat etxebizitza zein merkataritxi egin ahal izango dira TEK Soraluzeko bazkide. Datozen bi hilabeteotan dago bazkide egiteko aukera eta ekimena aurkeztu eta hurrengo astean, dagoeneko 84 herritarrek eman dute izena.

Izena emateko hiru modu daude. TEK Soraluzeren web orria baliatuta, 900859695 telefono zenbakira deituta (10:00-18:00ak arte) edo eguenetan, Kalebarren 8an dagoen Energia Bulegora bertaratuta.

Berriztagarriak eta aurrezkia

TEK Soraluze komunitatean bazkidetzen direnek etxeko argindarraren zati bat energia berriztagarrietatik eskuratzeaz aparte, batez beste, %20-%25eko aurrezkia eskuratuko du etxeko argindar fakturan.

Esfortzu txikia herritarrentzat

TEK Soraluze komunitatearen aurkezpenean emandako xehetasunen arabera, lehen bost urteotan ez du kosturik izango komunitateko bazkide izateak, herriko instalazioen mantenuaz, aseguruaz eta bestelakoez UTE TEK Gipuzkoa arduratuko baita, Gipuzkoako Foru Aldundiak 5.000 bizilagunetik beherako herriei komunitate energetikoak sortzeko ematen dien finantziarioari esker. Halaber, bazkideentzako argi-tarifarik onenak lortzeaz ere arduratuko dira. Behin bost urte horiek pasatuta, berriz, bazkide bakoitzak hilero 4-5 euro ordaindu beharko ditu halako zereginengatik.

TEK Soraluzeko bazkideek eurek dute erabakimena. Esaterako, bazkideek erabakiko dute etorkizunean inbertsio gehiago egin ala ez, herrian eguzki-plaka gehiago edo bestelako berriztagarriak jarri eta argindar gehiago ekoiztu eta bazkideen artean banatzeko.

Aukera zabala

TEK Soraluze komunitatea TEK Gipuzkoa ekimenaren baitan

dago. Oraingoan, lurraldeko 22 udalerritan sortu dira energiaren autokontsumo partekatua gauzatzeko komunitateak. Zumarraga eta Larraul izan ziren komunitate energetikoak sortzen lehenak, 2021ean. TEK Soraluze aurkeztu zuen Josu Etxebarria Edinorreko ingeniariaren esanetan, orain arteko gainerako esperientziak "oso ondo" funtzionatu dute. Zumarragan, adibidez, komunitateko kide egiteko itxaron zerrenda eta guzti egon da. Bestalde, autokontsumoaz aparte, bestelako ekimenak ere abiarazi dituzte, esaterako, energia biltegitratzeko proiektua eta auto elektriko bateratua jartzeko ekimena. Energia komunitateen bitartez gauza asko egin daitezke. Energia ekoizpena da bat, baina badaude bestelako interes komunak ere, adibidez, garraio publikoa, efizientzia...", esplikatu du Etxebarriak.

Antzerako gehiago

Edinorreko ingeniariak esan duenez, Gipuzkoatik harago, EAEn ere badira antzerako esperientzia gehiago abian eta baita EAETik kanpo ere, "autokontsumo partekatua hasi zenetik, EAE nahiko aurreratuta dagoen erkidegoa da, baina Valentzian, Katalunian... ere ari dira antzerako ekimenak egiten".

BAZKIDEEK IZANGO DUTE KOMUNITATEAREN GAINEKO ERABAKIMENA

"Askotan errepikatzen ez den aukera bat da"

JOSU ETXEBARRIA INGENIARIA

Josu Etxebarria Edinorreko ingeniariak aurkeztu zuen TEK Soraluze. Dienez ekimenak oso harrera ona izan du herrian.

Zelan doa Soraluzeko kanpaina?

Lehen astean jada 84 izen-emate izan dira, proiektuak duen kapazitatearen %30 inguru. Oso ondo dago hori.

Aurkezpenean, ekimenaren onurak goraiatu ziren; zergatik da horren onuragarri?

Askotan errepikatzen ez den aukera bat da. Hemen inbertsioa eginda dago. Bazkide eginez gero, etxean ez da ezer egin behar,



"ORAIN DELA LAU URTE ARAUTU ZUTEN ENERGIA PARTEKATZEKO AUKERA"

ez da zertan merkaturatzailea aldatu, lehen bost urteetan, kudeaketa osoaz arduratuko da UTE Edinor (Viuda de Sainz eta Edinorren arteko Enpresa-elkarte) eta bost urte horietan ez du kosturik izango; behin bost urte pasatuta, berriz, 4-5 euro inguru ordaindu beharko da hilero. Eibarren, adibidez, hasieratik ordaindu behar dute 9 bat euro hilero. Soraluzen ez, Diputazioak 5.000 biztanletik beherako herriei ematen dien laguntzengatik. Gainera, eguzkirik ez bada ere, ziurtatuta dago hornidura.

Bazkideek ikusiko duten bakarra da argindarraren fakturan aurreztu egingo dutela, energia berriztagarriak bultzatuko dituzte eta trantsizio energetikoan lagundu.

Horren on bada, zergatik ez da lehenago halakorik egin?

Orain dela lau bat urte atera zen autokontsumo partekatua figura. Ordura arte ez zegoen energia partekatzeoko aukera; etxe bakarretan, baserrietan-eta bakarrik ipin zitezkeen plakak, autokontsumorako. Lege hori aldatu egin da. Horrez aparte, hasieran energia hori 500 metroko radioan bizi zirenek bakarrik kontsumitu ahal zuten, orain, radio hori bi kilometrorra zabaldu da. Eta dirulaguntzak ere geroago etorri dira.

Sologoeneko argindarra ere erabili ahalko da komunitaterako?



Oraindik ez. Zentral hidroelektrikoetan oraindik 500 metroko radiora dute mugatuta kontsumoa, baina seguruenik hori ere aldatu egingo da edo bidea erraztu egingo dute.

Gora lekuko hori!

EGOITZ UNAMUNO. ARGAZKIAK: KORRIKA.

Bi urtean behin, Korrikak ilusio olatua eragiten du euskararen komunitate osoan eta suertez, pixka bat haratago ere bai. Aurten, olatua tsunami bihurtzeko bidean da, pasatzen den lekuan jendetza erakarrita. Euskaltzaleontzat pozgarria da ilusio hori ikustea eta poz hori erregai ederra da lotsatik harrotasunetik baino gehiago duen hiztun komunitate honek aurrera egin dezan.

Badirudi berdintsu pentsatzen dutela kataluniarrek, okzitaniarrek, galeiko hiztunek eta munduan zehar Korrikaren formula bereganatu duten dozenaka hiztun komunitateek. Harro egoteko moduan gaude gure herriari ez ezik, munduari egiten dihardugun ekarpenaz.





ALdea dago!!

Gaixoa gure Maripurtzil! Gaixoa, gainera, zentzu guztietan. Sukarra nahikoa ez, eta amak "mehatxu" egin dio, bere mesedean ari delakoan. Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



Izan ere, zer ematen zaio gaixo dagoenari? Botika, hain zuzen ere, eta gehienetan nazkagarria izaten da. Bete itzazu sudoku honen hutsuneak BOTIKA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (B, O, T, I, K eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Sudokua



Itzala



Pelloziriren laguna harrokeriatan aritu da: sua piztu du! San Juan bezpera dela uste al du? Suaren gainean jauzi egin duen batean, puzkertxo batek ihes egin dio, eta brokoli asko jan ostean izan denez, gaseoso samarra aterata zaio gizaioari, eta, jakina, su hartu dio... Zein da bere itzal zuzena?



GUTUNAK

Tokiko Energia Komunitatea

IKER ALDAZABAL

EAJ-REN UDAL-BOZERAMAILEA

Hilaren 11an izan genuen kiroldegiko antzokian, Soraluzeko energia komunitatearen sorreraren aurkezpen ekitaldia. Herritarren artean ikusmina piztu zuela esan daiteke, ikusirik aretoa jendez bete zela. 2022an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun departamentuarekin gaia landu ondoren, 5.000 biztanletik beherako udalerrientzat bideratutako diru-laguntza deialdira aurkeztu zen Soraluzeko Udala. 2023an jakin genuen, aldundiak 274.000 eurotako diru laguntza eman zigula proiektua garatu ahal izateko. Diru-laguntzari esker, Udalaren jabetzakoak diren San

Andresko frontoiko, Plaentxi Herri Ikastetxeko patioiko eta frontoiko teilatuetan 302 eguzki plaka ipini berri dira. Instalatutako potentzia 135KW-koa izan da, 204 etxebizitza eta denda txiki hornitzeko bestekoa. Jarritako plakak Soraluzen 25 urtean CO₂ xurgatuko luketen 3392 zuhaitz landatzearen parekoa izango litzake.

Azken urtetan udalak pauso garrantzitsuak eman ditu energia berriztagarrien aldeko apustuan. Helburua: KM0-ko energia berriztagarria ekoiztea. Herrian ekoizten dena herrian kontsumituz.

Besteak beste, 2017. urtean Sologoeneko elektra etxearen jabe egin zen udala. Horri esker, 2023. urtean 689.111Kwh ekoitzi zituen zentralak.

Kontutan izanda energia kontsumo handiena duen udal

eraikina, Arane kiroldegia dela. 2023ko uztailean, kiroldegiko teilatuan, 126 eguzki-plaka ipiniko ziren. Instalatutako potentzia 56KW izan zen.

Orain proiektu eta apustu berri baten aurrean gaude, herri mailako tokiko energia komunitatea sortzea. Lerro hauen bitartez Soraluzetarrak animatu nahiko nituzke komunitatearen parte izatera.

Helbide honetan eman daiteke izena: www.tekgipuzkoa22.eus/eu/proiektuak/soraluze/

Ekin diezaiozun guztion artean, herri jasangarri bateranzko bideari.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA

KORRIKA!



HAUSNARKETA

Korrikaren lekukoa

Zer sentitu duzu herrian Korrikaren lekukoa eroan duzunean?



CRISTINA CUENCA
AEK

"Nik pentsatzen nuen bertabertako jendea bakarrik emozionatzen zuela baina ez, ni ere emozionatu nintzen. Iruditzen zait adin guztietako jendea batzen duela, aurreko egunetatik zain dagoena eta jai sortzen duela".



GEYNE DO SANTOS
BIZIKALE

"Hirugarren aldia da Korrikaren lekukoa eroaten dudana eta oraingoan ere, asko gozatu dut. Gustatzen zait sortzen den elkartasun giroa, musika, jendea, dena. Ez dakit nola azaldu, Korrika zerbait berezia da, ezberdina".



AITOR ATXOTEGI
PILOTA TALDEA

"Gauza handia da. Aurten semearekin eroan dut lekukoa eta berezia izan da. Aurreko egunetan hor ibili gara goizero eta gauero Korrika jarraitzen. Ilusioa eta poza sentitu ditut, baina ardura ere bai. Komeni da bakoitzak bere aletxoa ipintzea".



XIMUN LARRAÑAGA
ATXOLIN GURASO ELKARTEA

"Aspaldi eroan nuen lekukoa baina aurten alabarekin eroateak ilusio handiagoa egin dit. Poz handia sentitu dut bera holako ilusioarekin ikusita. Egun potentea da eta jendea topera etortzen da, baina gero ahaztu ere bizkor egiten dugu".

PUNTUA



ARIANNE UNAMUNO LOIDI

Loratzen

Santa Eskeko makila kolpeek lurrari esnatzeko eskatzerako loratuta zeuden mimosen lore hori deigarriak, sahasen gusanito erako lore horixka arrak eta berde emeak, baita elorrien lore zuri txikiak ere; handik gutxira okaranen lore usaintsu zuriak eta arrosak, eta irasagar edo menbrillo-sagarren lore handi eta zuriak.

Disimuluan hasten diren urritzen, elautzen eta lizarren loreak ere laster batean agertu ziren eta udaberriari ofizialki hasiera ematerako, zuri-zuri, usaintsu eta erlez beterik zeuden gereziondoak. Egunetik egunera, orban berdexkak agertzen; haritzak, urkiak, madariondoak, urritzak... berdetzen, bakoitzak bere kolorea emanez paisaiari.

Gure aurrean gertatzen ari da, egunero-egunero; bizitzaren urteroko ikus-entzun-usainkizuna, sentikizuna, bioaniztasuna handitu ahala ederragoa dena.



"Mendiak abandonatuta espezie asko errekuperatu dira"

JON UGARTE UGARTE BASOZAINA

Gipuzkoan dauden 48 basozainetatik bederatzit arduratzen dira faunaz eta floraz. Horietako bat da Jon Ugarte (Oñati, 1968). Gertuko mendien, basoen eta bertako animalien gainean xehe jardun du hark. Kontatu du basoetako eta mendietako zenbait animalia ugaritu egin direla, gizakiak zuzeneko eragin txikiagoa duelako haiengan, baina hainbat gutxitzen doaz.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Iñaki Oregi, Fernan Oregi**.

Karakateko begiralekuan, Afrikatik etorri berri den aurtengo lehen sai zuria bistan duela egin du Jon Ugarte basozainak gure mendien, basoen eta animalien erradiografia detailez betea. **Zelakoa da gure mendien, basoen eta erreken osasuna? Azken urteotan zein izan da egon den aldaketarik nabarmenena?**

Natura eta baso mundua beti doa aldatuz; graduala da prozesua. Euskal Herrian, aurreko mendeko industrializazioak aldaketa handia ekarri zuen. Baserria utzi eta kalera etorri ginenean, orduan zeuden soro edo zelai eta inguru asko bihurtu ziren pinu-sail. Egon zen momentu bat jendeak egiten zuena aldi berean fabriketan lan eta baserriko lanak eta baso-lanak, eta pinuak dirua ematen zuen; gaur egun ez du ematen horrenbeste eta azken urteetan etorri zaio puntilla, banda marroiarekin pinua sikatzen ari dira eta. Badirudi ziklo hori ere amaitzen ari dela. Landaketek ez dute ematen horrenbeste etekin, eta jendeak nahiago du aisialdiaz disfrutatu basoan lan egitea baino.

Zein ondorio ditu horrek mendietan?

Baserria laga eta gizarte urbanagoa bihurtzean, mendia apur bat abandonatu egin da eta horrek faunako eta florako espezie askotan eragin positiboa izan du, hainbat errekuperatu egin dira. Lehen jendea mendian zegoen, ikazkinak bizi ziren, artzainak, baserritarrak... eta mendia "garbiago" zegoen. Animaliek ez zuten horrenbeste gordeleku eta gizakiaren presioa ere handia zen (pozoia, tiroa, lazoak, zepoak...). Orain dela 60 urte ia ez zegoen basurderik ez orkatzik, eta, orain dago beteta. Landareetan ere, berezko landaretza errekuperatu egin da, batzuk diote mendia "zikin" dagoela, sasiekin-eta dagoelako, baina hori aberastasuna da, prozesu naturala da, denborarekin baso bihurtuko dira.

Klima aldaketa igartzen da gurean?

Basozain batentzat ez da erraza hori esatea. Horretarako ikerketa gehiago behar dira eta jende aditua. Natura beti doa aldatuz. Urteotan, basurdeak, orkatzak, saiak... asko ugaritu dira. Saiak orain dela 40 urte ez zuten kumatzen hemen, orain askok kumatzen dute. Migrazioak aldatu dira. Lehen hemen negua pasatzen ez zuten espezie batzuek orain hemen pasatzen dute, usoak



Jon Ugarten basozaina mendigaietan.

udazkenean beranduago pasatzen dira, batzuk bertan bizi dira... Aldaketak beti egon dira. Badirudi orain, aldaketak azkarrago gertatzen direla eta zailagoa dela denontzat egokitzea (gizaki, animalia edo landare). Animalia askok kapazitatea izango dute egokitze eta beste batzuk gaizki pasatuko dute, desagertu egingo dira edo migratu egin beharko dute. Batzuk marjina handiagoa izango dute aldaketetara egokitze. Baina eremu kritikoetan bizi direnentzako -basamortuak, mendi puntak...- aldaketa txikiek eragin latzak izan ditzakete beraiengan eta desagertu daitezke. Badaude espezie batzuk hegoaldeko iparralderantz etorriko direnak, jada ari dira etortzen, Moskito mota batzuk... Baina ez dakigu gauza horiek diren aldaketa klimatikoarengatik edo beste prozesu natural batzuegatik. Adibidez, kaioak. Haiek lehen ia bakarrik itsasoan zeuden, gero ikasi zuten zabortegetan jaten putreek moduan, eta, orain dela gutxira arte, Espainiako kaio populaziorik handiena Madrilen zegoen, hango zabortegetan. Berdin ubarroiak, lehen kostan egoten ziren eta orain ikasi dute erreketan errekurtsioak dituztela. Gauzak asko aldatu dira.

Zein dira aldaketa horien arriskurik handienak?

Ez gara konturatzen orain arte oso klima ona izan dugula, epela eta umela; muturrak ez ditugu sufritu. Aldaketa klimatikoa ekartzen ari dena da muturrekoagoak eta gogoragoak: sikute txarragoak, elurra egiten duenean fuertago bota dezake, haizea ugaritu... azken hori, adibidez, baso landaketetarako arriskutsua da. Beste arrisku bat da suteena, haizeak sute txiki bat asko heda dezake, lehorte garaiak luzeagoak izaten dira eta mendiak sikuago daude eta sute arriskua gorantz doa. Oraindik orain, Gipuzkoa izango da Espainia denean sute gutxien duen eta eremu gutxien erretzen den gunea. Jende asko bizi gara, agudo detektatzen da sua, nahiko sarbide ona dugu, normalean agudo itzaltzen dira eta ondo doa, baina etorkizunean ez dakigu zer pasatuko den. Errekak, berriz, ematen duenez, ari dira pittin bat epeltzen. Amurrainen eta beste arrain espezie batzuen populazioak poliki-poliki okertzen doaz. Mila faktore izan daitezke, kutsadura... baina bat izan daiteke tenperatura. Badira beste animalia batzuk, esaterako anfibioak, sentsibleagoak direnak,



Martin arranzalea.

hezetasuna behar dute... baina basozain moduan ez naiz kapaz hori dena erantzuteko. Behar dira beste ikerketa batzuk. Landareen kasuan nahiko garbi ikusten da asko lehenago loratzen direla. **Gure mendi-basoak hobeto ezagutu nahian, hiru arlotan banatuko ditugu, animaliak, landaredia eta ura. Gurean ze animalia da ugariena?**

Hegaztiak, dibertsioenak ere badira. Nekazaritzarekin lotutakoak beherantz etorri dira, batez ere haziak jaten dituztenak (hegatxabalak, kalandriak), baina baita intsektujaleak ere (kulandrinak, artzandobiak). Ez bakarrik hemen, baita Espainia aldean ere, eperrak, galeperrak... estepako hegaztiak. Orain, belardiak uniformatu egin dira, espezie produktiboak ereinez eta ez dago lehengo landare dibertsitatearik. Baina basoarekin lotuta daudenak, berriz, asko ugari dira. Harrigarria dena da gure pinudietan zenbat hegaztik, batez ere harrapakarik kumatzen duten: zapelatzak, zuhaitz-belatzak, arrano txikiak (Plazentzian bertan eta Irukerutzeta-Karakateko pagadian eta solte dauden pinudietan), arrano liztor-jaleak, miru-beltzak eta miru-gorriak. Azken hori Euskal Herrian dago galzorian klasifikatuta baina Gipuzkoan gora doa eta hemen inguruan, Elgoibarren eta Bergaran, topatu ditugu kabiaren batzuk. Ez litzateke arraroa hemen ere egotea. Pinu beltzetan kumatzen du miru-gorriak. Bestalde, Europako miru-gorri asko, kumatzen dutenak Danimarkan, Alemanian, Suitzan eta lehen migrazioan pasatzen zirenak, orain geratu egiten dira hemen negua pasatzen eta batzuk



Okil beltza.

ikasi dute leku ona dela hau, jatekoa badagoela, zizareak, karroina txikiak...

Hortaz, pinuak askok uste baino hobeak dira, ala? Pinua arbola bat da eta arbolak onak dira, txarra dena da mendi osoa, espezie berarekin jostea. Baina zuk lagatzen badituzu pinudi zaharrak, ikusiko dugu hegazti asko bizi direla haiei esker. Okilak ugari dira asko eta okil beltza agertu da baita hemen ere. Burgostik eta Nafarroatik sartu zaigu, batez ere. Ikusi du pinuaren egur asko usteltzen ari dela eta zomorroak barruan dabilzala. Egur hila oso inportantea da, han intsektu asko bizi dira eta animalia asko zomorroak jaten dituzte. Usoek ere berriro kumatzen dute hemen. Beleei ez zaie lehen bezain besteko egurrik ematen eta ugari egin dira. Korbido gehienak ugari dira, eskilarazoak, mikak, erroiak... Eta txori txikietan ere asko daude: birigarroak, zozoak, txepetxak, txontak, txantxangorriak... Hegaztietan dibertsifikazio handia dago. Leku epela da, janari asko dago, kostatik ere sartzen dira eta neguan Europa izozten denean kostaldera datoz jan bila, limoko hegaztiak edo zankaluzek (oilagorrek, hegaberak,



Azeria.




Lepahoria.

**"MENDIA APUR BAT ABANDONATZEAK
FAUNA ETA FLORAKO ESPEZIE
ASKOTAN ERAGIN POSITIBOA IZAN DU"**

**"PINUA ARBOLA BAT DA ETA ARBOLAK
ONAK DIRA, TXARRA DA MENDI OSOA
JOSTEA ESPEZIE BERAREKIN"**

**"ASKO UGARITU DIREN
UGAZTUNAK DIRA ORKATZAK ETA
BASURDEAK"**



Orkatza.

kuliskak, txirriak...). Euskal Herria hegaztietan leku aberatsa da.

Eta ugaztunak?

Horiek ere ugaritu egin dira. Basoa utzi egin da eta pagadiak, txilardiak, otadiak, narrak... gordelekuak eta janlekuak dira haientzat. Gainera, orain, bakean lagatzen zaie. Problema berriak dituzte, autoak harrapatuta hiltzen dira asko, (hegaztiekint antzera, horiek tendidu elektriko eta haize errotekin hiltzen dira)... kalte berriak daude, baina oro har, ugaritu egin dira. Mustelidoak dezente daude: lepazuria, lepahoria, azkonarra, katajineta... Normalean gauez ibiltzen dira eta tranpeoko kamerak ipintzen dituzunean denetik azaltzen da. Baina asko ugaritu direnak dira basurdea eta orkatza. Ugaztun horiek biak berezkoak ziren hemen, otsoa eta hartza ziren bezala, baina gizakiaren presioarekin desagertu egin ziren. Esango nuke orkatza Gipuzkoan desagertu egingo zela, baina basoa laga zenean, berriro ere etorri dira berez, Burgos aldetik. Basurdea ere neurri handi batean hortik sartu da. Otsoa zabaltzen dabilen moduan. Kantauriar mendikatea (Burgos-Palencia-Asturias, Kantabria)



Arrabioa.




Muskerra.

ugaztun askorendako gordeleku garrantzitsua izan da, adibidez, otsoarentzako eta hartzarentzako eta azken urteetan inguruko lurraldeetara zabaltzen ari dira. Baina gauza bitxiak ere gertatzen ari dira, adibidez, Pirinioetara otsoa Italiatik etorri da eta Arabara, berriz, urre koloreko txakala Balkanetatik. Azeriak, berriz, gorabeherak izaten ditu, sarna izaten du, urte batzuetan gogor jotzen dio eta jaitsi egiten da. Erbiak, berriz, gora egiten ari dira (Diputazioak, ehiztariekin batera, bertako erbiarekin birpopulatu egiten du), baita basakatuak, katamixarrak, muxarrak... kirikinoen kasua ez dakit, asko hiltzen dira kotxeak harrapatuta. Beste espezie bat, Europan galzorian dagoena eta baliteke galtzea, bisoi europarra da. Eta hori badago hemen. Erreka inguruetan nukleo inportantea dago Europa mailan, Errioxan, Araban, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan, nahiz eta oso populazio txikia izan.

Eta narrastiak?

Espezie desberdinak daude, muskerrak, sugeak, sugandilak... Eskulapio sugea da arruntena – horixka eta handia-. Sugegorria gutxiago dago, hori da dugunen artean pozoitsua den bakarra, baina oso haginkada kasu gutxi izaten dira. Orain, errespetu eta kontzientzia handiagoa dago eta sugerei bakean lagatzen zaie. Erreketan ere badaude. Suge gorbataduna eta suge leunak ere ohikoak dira eta erreketan uretako sugea ikusiko dugu. Hainbat anfibio espezie ere baditugu: zapoak, igelak, txantxikua, uhandreak, arrabioa... azken hori, horia eta beltza, ugaria pagadietan.
Ura aipatuta, gurean, zoriez, ur asko dago, ala?



Sugea berak harrapatutako arratoia ondoan duela.

"GAUZA BITXIAK ERE GERTATZEN ARI DIRA, ADIBIDEZ, ARABARA, URRE KOLOREKO TXAKALA BALKANETATIK ETORRI DA"

"SUGEGORRIA DA POZOITSUA DEN SUGE BAKARRA HEMEN, BAINA OSO HAGINKADA KASU GUTXI IZATEN DIRA"

"ASKOTAN BOTATZEN DUT FALTAN MENDIAREN ERABILTZAILEENGANDIK MENDIAK HOBE ZAINTzea"



San Andrestik Txurrukara bidetako urjauzietako bat.

Umedade handia dago. Euri asko egiten du, lehen gehiago, baina plubiometria ona dugu. Inportanteena da lurra babestea. Arazoetako bat da baso ustiapena. Lurra azalean lagatzen baduzu eta ez baduzu lana ondo egiten, eurite handi bat badator, urak joaten dira edozein lekutatik. Uholdeak hemen beti egon dira, baina ikusten da aldaketa klimatikoarekin fenomenoak gogorrak direla, hortaz, izan ditzakegu euri-jasa handiagoak edo gehiago urtean zehar, beraz, behartuta gaude mendia hobeto zaintzera. Uholdeak eta lurra galtzea prozesu naturala da, suteak bezala, baina neurriak har daitezke ez izateko horren kaltegarria, horregatik mendian lurra zaindu egin behar da eta horregatik da horren inportantea baso ustiaketak txukun egitea, ondo hartzea urak eta mendi garbiketarako txukun egitea, jausten den euri hori errekarara poliki joateko, lurra eta zuhaitzek xurgatu ondoren. Ez badago ondo hartuta, ura lurgainetik doa, zuzenean doa, lokatza eramaten du eta kalteak eragiten ditu. Bestalde, errekarato asko ditugu eta haien ondoan bizitasun handia dago landare eta

fauna aldetik: erreka-karramarroak, anfibioak, narrastiak, arrainak...

Eta zelan dago gure ibaiak?

Ibaiaren osasunak hobera egin du, asko baina pittin bat lo hartu dugu. Aldaketa handi bat izan zen orain dela 100 urteko industrializazioa. Fabrikak sortzea zen inportantea, etxe asko ibai ondoan eraiki ziren, saneamenduak hala-moduz egin ziren... Orain dela 40 urte lan handia egin zuten administrazioetik, eta fabrikek eurek ere bai, errekarak garbitzen. Kolektoreak jarri ziren, araztegiak... Industria ere aldatu egin da, lehen textil, papelera eta industria astun asko zegoen eta orain industria ez da horren kutsakorra, baina pittin bat lo hartu dugu. Oraindik badaude herri batzuk kolektorea ondo jarrita ez dutenak: Aramaiok, Elgetak eta Antzuolak, adibidez. Eta haien urak Plazentziara datoz. Bestalde, enpresa handiek izan ditzakete istripuak, baina ez da horren ohikoa, inbertitu egin dutelako horretan, baina enpresa ertainek eta tailer txiki askok ez daukate kapazitate inbertsioak egiteko, eta oraindik taladrina erabiltzen dute eta beste produktu batzuk isurtzen dituzte. Horrez aparte, obra oso handiak daude, lur mugimendu oso handiak dituztenak, autopistak, trenak... eta nahitaez, euri-jasa handiak datozenean, horietatik erreketara eta ibaietara hondar asko doa. Lan handia dago egiteko oraindik.

Beste zerbait nahi baduzu esan...

Gure mendiak gehiago maite eta zaindu behar ditugu. Orain, mendiaren erabilera publikoa asko handitu da. Ibiltzen, korrika, bizikletan, todo-terrenoan, zaldiak, parapentean, eskaladan, slackline egiten, argazkigintzan... jende asko dabil eta askotan botatzen dut faltan mendiaren erabiltzaile horiengandik mendiak hobeto zaintzea eta ikusten bada zerbait ez dagoela ondo, ba horiek salatzea, adibidez, kea ikusten badute, motorrak mendian, errekararen bat zikin, baso ustiaketa bat oker eginda, animalien bat zaurituta... Diputazioa deituta, 112ra deituta edo herrian bertan jakinarazita, baina gauzak esan egin behar dira. Bestalde, baditugu landare inbaditzaile batzuk oraindik kontrolatzeko moduan daudenak, panpa-belarra, budlejak, falopia... Horiek lehenbailehen kendu behar dira eta orain da horretarako momentua. Beste espezie batzuk oso zailak dira kontrolatzeko, akaso ezinezkoak ere bai, baina beste batzuk oraindik kontrola ditzakegu eta hori egin beharra dago.

"Aurrerapauso esanguratsua eman du Marrasek"

ARRATE GISASOLA MARRAS IRRISTALKETA TALDEKO LEHENDAKARIA

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **ANDER GOMEZ**

Apirilaren 13an (zapatua) hockey lerroko infantilen egoitza izango da Soraluze lehen aldiz. Marras Irristaketa Taldeko lehendakari Arrate Gisasolak adierazi duenez, "aurrerapauso esanguratsua" eman dute 2019tik hona: kategoria bakarrean egotetik, bostean jokatzera pasa dira; eta "lan askorekin eta Udalaren laguntzaz" infantil federatuko egoitza izateko beharrezko diren material eta hesiekin egokitzea lortu dute Araneko frontoia.

Zein zailtasun topatu dituzue taldea eratzeko eta zabaltzeko bidean?

Kirol minoritarioa izanda, urte hauetan egin behar izan dugun lana ikaragarria izan da. Ez da erraza herri txiki batean horrelako kirol bati eustea eta, momentuz, lortu dugu!

Horretan, igandero kiroldegian egiten diren irristaketa saio irekiak lagungarri izan dira eta izango dira: gure "harrobia" izan daitekeela esango nuke (barre), gune garrantzitsua oso.

Taldea bezala, zerotik hasi dira jokalaria ere... Nolako izan da ibilbidea emaitza aldetik?

Partida gutxi batzuk irabazita heldu gara honaino. Baina, aurten, emaitzak askoz



Arrate Gisasola, hockey makila eskuan.

positiboagoak izan dira: talde askoren aurrean pare pare aritu gara eta irabazitako partidak ere izan dira batzuk. Nabarmena izan da hobekuntza eta oso pozik gaude.

Jokalarien hobekuntza horren atzean, irakasle onak ere egongo dira, ezta?

Bai. Jokalarien meritu propioaz aparte, buru-belarri izan ditugu Iraitz Ibarzabal eta Julian Fernandez entrenatzaile lanetan hasiera hasieratik, jokalariei erakusten eta bidean beraiek ere formatzen. Arlo tekniko hori gabe ez ginatke ezer.

Nola aldatu da herritarren erantzuna taldearen sorreratik hona?

Hasieran harrিতa jaso zuten berria; "Soraluze hockey talde bat dagoela? (Barreak) Plaentxian bakarrik gertatu leike hori!". Orain, herritarren babesa eta interesa sentitzen dugu batez ere. Baina noizbehinka badago keza, duda edo komentario negatiborik, noski; gehien bat gazteek daramatzaten "traste guztien" edo "desplazamendu luzeegien" harira.

...eta hala da?

Bai eta ez. Maleta handiekin atzera eta aurrera dabilta, egia da; eta ez da gauzarik erosoena, baina "gustuko lekuan, aldaparik ez!". Gainera, materiala zaindu behar izateak, babes guztiak prest eduki beharrek... hori guztia ardura eta autonomia lantzeko irakasgai ederra da eurentzat.

Desplazamenduen inguruan, esan beharra dago gure lehiaketak ez direla ohiko kiroltakoak moduan: Egoitza bakarrean jokaten dira jardunaldiko partida denak, hilean behin normalean. Ez da hainbesterako! Gainera, taldeen arteko harremana asko sustatzen du honek.

Gasteizera edo Bilbora zoazte gehien bat; ez dago oso urrun ere, baina, ez al dago beste talderik inguruan?

Debabarreneko hockey talde bakarra da Marras, eta Gipuzkoa mailan bi talde bakarrik daude hockey lerro modalitatean: Bergarako Burdinola eta Soroluzeko Marras.

Hala eta guztiz ere, emakumezkoen taldea izatea lortu duzue, herriko kirol eskaintzen artean bakarra.

Bai. Gurean bost taldetatik lau mistoak dira eta senior taldea (nagusiena) da emakumezkoena. Guretzat emakumeen erreferente izatea helburu garbia izan da urteotan; Soroluzeko neskentzat kirolera gerturatzeko, kirolean aritzeko, aukera erreala izatea.

Bestalde, ohiko pilota eta futbola bezalako "kirol handiez" aparte eskaintza izan nahi dugu mutilentzat ere. **Aurrera begira Marrasen izena presente edukiko dugu herrian, beraz.**

Bai. Jarraitzeko gogorik ez da falta behintzat! Hori bai, familien eta herritarren inplikazioa mantentzea behar-beharrezkoa izango da; antolaketa lanetan aurrera egiteko, kirol mailan handitzen jarraitzeko eta ekonomikoki ere erantzun ahal izateko. Gure helburua da Soroluzera gure kirol hau gehiago gerturatzea; herritarrek gozatzeko aukera izatea eta herrian saltsa sortzea.

Apirileko Soroluzeko hitzorduaren zain egongo gara ba; baina, bitartean, bestelakorik?

Infantil eta emakumeek aurten Espainiako liga jokatzeko lehiari aurre-kanporaketa jokatu dituzte. Emakumezkoen data zehazteko dago oraindik, baina infantilek larunbat honetan bertan jokatu dute Olaraben (Gasteiz), Bilboko Metropolitan taldearen aurka.



Zer nabarmenduko zenuke Marrasetik?



IRENE AGIRRE AURRELARIA

Oso talde bateratua osatzen dugula. Gutako batzuk kuadrillakoak gara, bai, baina hori hemen "borratu" egiten da. Pistara irteten garen bakoitzean kideak gara, Marraseko kideak.



ENARA GARITANO AURRELARIA

Patinatzea gustuko dut berez, eta horri makila eta pastillarekin golak sartzeko dinamika gehitzea probatu nuenean txundituta gelditu nintzen. Hegan egitearen sentsazioak gertu dagoela esango nuke.



ANE BASTARDO ATEZAINA

Gehien gustatzen zaidana egoitza batera joan eta bizpahiru partidu jokatzeko da. Nekeza da, baina besteengandik ikasteko eta lagunak egiteko aukera bikaina denez, merezi du.



AMETS ALBERDI DEFENTSA

Guraso eta lagun, guztiok batera taldea aurrera ateratzeko egiten dugun esfortzua baloratzen dut nik; eta, batez ere, Iraitzi (entrenatzaileari) eskertuko nioke eskaintzen digun laguntza eta denbora guzti hori.

Punk-a etxera bueltatu da

DUELA URTEBETETIK PUNK KONTZERTUAK ANTOLATZEN DITUZTE GAZTETXEAN

ARGAZKIA ETA TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Plazentziatar askoren imajinarioan, Gaztetxea punkaren eta metalaren etxea da. Izan ere, 80ko eta 90ko hamarkadetako taldeek arrasto handia laga zuten eta iraganari begira jarritakoan, sarri aipatzen dira hainbat talde mitikok eskainitako kontzertuak: RIP, Cicatriz, La Polla, Die Tester, SuTaGar... Imajinario horrek bizirik jarraitzen du.

Antolatzaile taldea

Duela urtebete, punk eta hardcore musika gustuko duten herritar batzuk elkartu eta kontzertuak antolatzeari ekin zioten. "Guk duela urte batzuk Gaztetxean pasatzen genuen egun guztia eta itxita ikusteak demaseko pena ematen zigun. Gainera, orain, Gaztelupea ere itxita dago. Arranoa da musika alternatiboko kontzertuak antolatzen dituen leku bakarra. Gaztetxea herriaren erdian dago eta potentzial handia dauka. Guk nahi duguna da Gaztetxea mugitzea eta musika antikomertziala bultzatzea, alternatiba bat eskaintzea beste tabernetan dagoenaren aurrean", azaldu dute.

Ainhoa, Jone, Enara, Urres, Erik, David, Urko, eta Sabin dira antolatzaile taldea osatzen dutenak: "Batzuk arduratzen dira janaria prestatzeaz; Davidek kriston paella vegetarianoak preparamen ditu

(barreak). Beste batzuk sarrerek saltzen dituzte eta beste batzuk txandak egiten dituzte barran. Teknikaria ere badaukagu, Alex eta kartelak Ainhoak diseinatzen ditu".

Punk, hardcore, oi, rap...

2023ko otsailean antolatu zuten lehen kontzertua eta harrezkero, urtebete, zortzi kontzertu antolatu dituzte, punk, hardcore, oi, rock, rap estilokoak: "Bergaratik, Arrasatetik, Bilbotik, Kataluniatik... etorri izan dira. Laster Alemaniatik dator talde bat eta badakigu biratxo bat antolatzen dihardutela Gaztetxeetan. Hasieran gure lagunak ekarri nahi genituen eta berehala sartu ginen dinamika baten non kalendarioa betetzen zen kontzertu gehiagorekin. Azkenean erabaki dugu hilean kontzertu bakarra antolatzea".

Momentuz, sarrerek salduta ateratzen duten diruarekin ordaintzen diete taldeei: "Talde batzuek ez dute nahi izaten dirurik eta afariarekin konforme izaten dira. Hori bai, afaria denei ematen diegu eta trago

"GUK NAHI DUGUNA DA MUSIKA ANTIKOMERTZIALA BULTZATZEA, ALTERNATIBA BAT"

batzuk ere bai. Esaten digute oso gustura egoten direla eta berriz etortzeko desiratzen daudela". Gainerakoan, ateratzen den guztia zuzenean Gaztetxera bideratzen dugu, Gaztetxea konpontzeko.

Herritarren aldetik ere, orokorrean, harrera ona jaso dute: "Askotan taldeekin batera, lagunak ere etortzen dira eta normalean herriko jendea ere hurreratzen da. Gure kontzertuetan jendea pozik egoten da eta asko eskertzen digute Gaztetxea zabaltzea".

Ateak zabalik

Azken hilabeteetan proposamen asko jaso dituzte taldeak ekartzeko eta hiru lagun gehiago batu dira antolatzaile taldera. Ateak zabalik dituzte: "Baldin badago baten bat talde bat ekarri nahi duena gu zabalik gaude taldean hartzeko. Filosofia da kontzertu denak denon artean antolatzea, elkarri lagunduz".

Kontzertuen egutegia

Apirilak 6

Es war mord + Blakkat mentxu

Maiatzak 18

Sentenciados + No somos cicatriz + Dawanada

Ekainak 29

Neskatasuna



Antolatzaile taldea: Alex, Urres, David, Jone, Ainhoa, Ion eta Enara.



'Las Sexpeares' taldea. J. ARRUIBARRENA



'Chuleria joder' taldea. J. ARRUIBARRENA

"Eu quero que veña e goce todo o mundo"

SONIA BLANCO GALIZIATIK SORALUZERA



Irakurri
elkarrizketa
galegoz, QR
kodea
eskaneatuta.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Sonia Blanco Rolan 1975ean jaio zen Cortegada (Ourense) izeneko herrixka txikian. Duela hogeita lau urtetik Soraluzen bizi da.

Nolakoa da zure jaioterria?

Ourenseko probintzian dago eta Rios udalerraren barruan dauden berrogeitaka herrixken arteko bat da. Badago beste Cortegada bat ere, hiriburuari itsatsita dagoena baina gurea herrixka txiki bat da. Gaur egun, hogeita hamar biztanle ditu. Udan gehiago. Herritar asko etorri ziren Bilbora bizitzera eta orain etxea berritu dute eta udan hara bueltatzen dira.

Jende asko joan zen atzerrira bizitzera?

Bai, Galiziatik jende asko joan zen Brasilerara, Mexikora eta baita Euskal Herrira edoartzelara ere. Nire amona (amaren ama), adibidez, Brasilerara joan zen eta ez zen bueltatu. Hango jende asko bizi da Ermuan eta inguru honetan.

Ez zuen ematen bizitzeko?

Ematen zuen bizirauteko, ez gehiagorako. Nire gurasoek bederatzita behi zituzten, ardiak, oiloak, sei txerri... Ardoa ere egiten genuen. Lurra astoarekin



Cortegada herria.

lantzen zuten. Aita astoarekin joaten zen generoa erostera, platanoak eta abar eta etxetik saltzen zituen. Gure familiak gaizki pasatu zuen. Amona alargun gelditu zen eta terratenienteari mailegua eskatu behar izan zioten etxea bi aldiz erre zelako. Gero hobetu zen egoera eta aitak kantina zabaldu zuen. Nik txiki-txikitatik ezagutu nuen tabernako giroa. Bertan izan genuen herriko lehen telebista. **Herrian galegoz berba egiten da?** Bai, dena. Han jendea moldatzen da gazteleraz, ez

delako eskolatu. Nire gizonak ulertzen du, baina ez du berbarik egiten eta hara joan eta gazteleraz hasten denean, denak gazteleraz erantzuten ahalegintzen dira gaztelerazko berba batzuk sartuta.

Nolakoa da kultura galegoa?

Lana, lana, lana eta lana. Horixe da kultura galegoa eta guk ikasi duguna. Alde horretatik, antz handia du hemengo baserrietako bizimoduarekin. Beharbada, hemen lehenago erreminta gehiago egongo ziren, baina gainerakoan bizimodua berbera izan da. Aldatzen dena da hizkuntza.

Noiz atera zinen zure herritik?

Hamasei urte nituela atera nintzen eta anaiarengana etorri nintzen, Bilbora. Hasi nintzen administrari ikasketak egiten. Anaiak nahi zuen bere enpresan lan egitea, baina nik ez nuen nahi. Ikasketak laga eta arrebarengana joan nintzen bizitzera, Bilbon bertan. Interna lan egin nuen eta Galiziara bidaietan ezagutu nuen nire senarra. Ezkondu nintzen Tarragonan, han lan egiten zuelako eta handik Galiziara joan ginen, handik Ermura, nire senarra Ermukoa delako,



Sonia Herriko etxearen tabernako atean.



Umetan, Cortegadan. S. BLANCO



Umetan, etxeko txakurkumearekin. S.B.



Gazteagotan, haurdun. S.B.

handik Donostiara eta azkenik Soraluzera, senarraren loiba bat hemen bizi zelako. Hori izan zen duela hogeita lau urte eta ordutik hemen bizi naiz.

Zer botatzen duzu faltan?

Haurtzaroko oroitzapen onak datozkit. Lasaitasuna. Oporretan hara joaten naiz eta handik pilak kargatuta bueltatzen naiz.

Hangoa da hemengo baserrietan moduan, jaisten zara beharra duzulako medikurako edo, baina goian zaudenean dena duzu. Orain, nire alaba bertan bizi da ume txikiarekin eta ume txikiak nahi duena egiten du han. Nire semea ere Merinen bizi da, herritik bost minutura. Haien hutsunea sumatzen dut. Gainontzean, nire ama hizkuntza galegoa da eta tabernan galegoz berba egiten dut galiziarrekin eta herritarren batekin ere bai, adibidez, Aitor Amorrekin.

Orain Herriko Etxea tabernaren kargu egin zara.

Bai, urtarrilean hartu nuen taberna. Osasun arazoak ditut besoan eta errekuperatu arte nahiago dut neure buruarentzat lan egin. Aukera nuen lanik egin gabe egoteko baina ni beti izan naiz ekonomikoki independentea eta lan egin behar dut ondo sentitzeko.

Zein da zure helburua?

Nik nahi dut hona mundu guztia etortzea eta gozatzea: pintxoak, giro ona, elkarrizketak, barreak... Niri giro ona gustatzen zait. Horrez gain, bazkari edo afariak ere eskaintzen ditut, aurrez enkargatuta, nik aukera izateko janaria erosteko herrian eta horrela kozinatu ahal izateko momentuan erositako generoarekin. Etxera erodateko janaria ere eskaintzen dut: olagarroa, tripakiak...


ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Urrategi Gantxegi Unanue

Otsailaren 26an. Zorionak amama, pilo bat maitxe zaitxugu eta segi gu hain ondo zaintzen. Julen eta Sara



Nora Larreategi Sanchez

Otsailaren 21ean 14 urte. Zorionak Nora!!! Patxo haundi bat etxekuen partez, jarraitu beti bezain alai!!!



Ainara Gonzalez Armengol

Otsailaren 27an 9 urte. Zorionak. Segi orain arte moduan, sorgintxo. Etxekoan partez.



Oihan Larrañaga Agirre

Martxoaren 4an 18 urte. Zorionak Oihan! Segi gol asko sartzen!!!



Xabi Alberdi Fayanas

Martxoaren 9an 5 urte. Zorionak bihotza! Askok maite zaitugu.



Borja Aristi Placencia

Otsailaren 29an 44 urte. Zorionak Aitatxo!!! Aurten bai tokatzen da. Muxu haundi bat familixan partez!!!



Borja Aristi Placencia

Otsailaren 29an 11 urte. Zorionak kuadrilako gaztiari! Patxo haundi bat.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Miren Uranga Lizaso
Alvaro Arizaga Acha
Jesus Maria Laskurain Zangitu
Mariano De la Haya Oti
Jose Antonio Astigarraga
Basterretxea

Jaiotakoak

Mari Carmen Arrieta Larrañaga
Muhammad Taher El Malehy

bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

**EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA**

943 903 450 bertako.eus

administradores
Compañía de Administradores de Edificios
de Propiedad Horizontal
de la Comunidad Autónoma del País Vasco

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Komunitateko lehendakaria zenak etxebizitza saldu berri du, eta jakin nahi nuke, lehendakari kargua nori egokituko zaion orain.

Lehendakariorde kargua ere izendatu den komunitateetan, berari dagokio lehendakaria ordezkatzea. Interpretazio zorrotz baten arabera, lehendakariordeak barne-ondorioetarako bakarrik hartzen ditu bere gain presidentearen eginkizunak. Beraz, hirugarrenetik harreman juridikoetan esku hartzeko edo epaitegi edo erakunde ofizialen aurrean agertzeko, beharrezkoa da Jabeen Batzordeak lehendakari berria izendatzea. Nire ustez, ez da beharrezkoa Jabeen Batzarra egin eta lehendakari berria izendatzea; lehendakariordeak lehendakaria ordezkatu baitezake eginkizun guztietan, lehendakari berria izendatu bitartean.

ONDORIOA: jabe berriak ezin du lehendakaritza hartu, ezta funtzioetan ere. Lehendakariaren kargua pertsonala eta besterenezina delako.

GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

ESKELAK

ESKELA

Jesus M^a Laskurain Zangitu

2024ko martxoaren 6an hil zen, 78 urte zituela.

Zu gurekin eta gu zurekin.

Familiaren izenean, lagundu diguzuen guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu; bereziki, Eguneko Zentrotako langileei.



Familia.

ESKELA

Miren Uranga Lizaso

2024ko martxoaren 15ean hil zen, 87 urte zituela.

Espanturik gabe alde egin duzu isil, zuzen, jakitun, jabe.
"Bizi zaitezte" esan zenigun,
"saia gauza ederrak, elkar maitatu" eta gu... gu saiatuko gara, noski.



Familia.

MABEL
ILFWPAINBEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma



Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, gurutzatutako teknologietan lan egiten dugu. Call-Cam sistema berriak zure arazoak erabiltzen ditugu.

Elizburu, 3 beheko
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
Itxig.: 943 42 78 79
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenerik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



Armendi
Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako biddotsa
Ettxeko fritokak
Soufflés

Tel.: 943 75 10 02



Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitortokak, nahiak, pizza, gaztaria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88



SORALUZE
Mendiola ind. 13
Sorluze

MOTOR

676 556 817 - 943 75 21 38



IZKUIRRE
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era gurtietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913



ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoak, pertsiak, ateak, barandilak salmerita eta korponketa

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

T. 662 234 609
Sagar Etxeko Kalea 2 - 20090 SORALUZE
e-mail: odrileihoak@gmail.com



Hortz klinika

Errabal 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologia
K.Z. 48.000.590

30 urte baino gehiagoko esperientzia

Katia Gustinne
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

odontologia, protesiak, ortodontia, odontopediatria, ingurmentak, estetikak...
Zerbitzu radiologiko onakorra (3D):
ekinera, orto eta lela.



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Izena eman:
www.maltuna.eus

Erdi-Mailako Heziketa zikloak

• Administraritz
Kudeaketa

• Instalazio Elektriko eta
Automatikoak

• Mekanizazioa

Goi-Mailako Heziketa zikloak

• Administrazioa eta
Finantzak

• Zuzendaritzari
laguntzea

• Fabrikazio Mekanikoko
Diseinua

• Mekatronika
Industrialia

• Automatizazioa eta
Robotika Industrialia

• Fabrikazio Mekanikoko
Produktzioaren Programazioa

• Web Aplikazioen
Garapena

• Mantentze-lan
Elektronikoa

Espezializazio kurtsoak

+ Adimen artifiziala & Big Data

+ Forjaketa Prozesuen Diseinua & Ekoizpena

+ Fabrikazio Adimenduna



Aukera bat baino gehiago!

- Lanbide Heziketa **DUALA**.
- **ETHAZI** Metodologia.
- Arratsalde Ingelesko errefortzu klaseak doan.
- Langile eta langabetuentzat ikastaroak.
- Eskaeren araberako formazioa neurria.
- **Erasmus+**.
- Ikasle eta ikasle-orientzat **lan-poltsa zerbitzua**.
- Orientazio zerbitzua.

www.maltuna.eus